

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 40/2010 FORU DEKRETUA, martxoaren 23koa, 2010ean Bizkaiko kultur ondare etnografikoaren kontserbazio, ikerketa eta hedapenaren arloetako jarduerak egiteko diru-laguntzak ematea arautzen duena.**

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak («EHAA», 1990eko abuztuaren 2ko «EHAA», 157 zk.) 102.2 artikuluan ezarri du foru aldundiek urtero onetsiko dituztela kalifikatutako eta inbentariatutako kultur ondasunen kontserbazio, hobekuntza, zaharberrikuntza eta indusketarako laguntzen egitarauak; egitarau horietan emango diren laguntzak ezarriko dira, baita horiek esleitzeko irizpideak eta baldintzak ere.

Esparru arau-emaile honen barruan, foru dekretu honek, 2010ean, Bizkaiko etnografia ondareari loturiko jarduerak egiteko diru-laguntzak ematea arautzen du, eta publikitate, lehia eta objektibotasun printzipioetan oinarritzen da.

Kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak egin daitezen sustatzea Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren helburuetariko bat da. Jarduera horien xedea da kultur ondare etnografikoa zaintzen eta zabaltzen laguntzea, hiritarrak aberastu eta sentsibilizatzeko.

Etnografiak herri edo talde baten ezaugarriak aztertzen ditu. Horretarako, datuak bildu, antolatu eta aztertzeko teknika eta prozedurak erabiltzen ditu, eta, batez ere, metodologia kualitatiboa aplikatzen du. Datuek deskripzio bat osatzen dute. Etnologia eta antropologia (biek ikuspegi konparatibo eta teorikoa erabiltzen dituzte analisian) lotuta daude etnografiarekin, bai eta etnohistoria ere (denboraren ikuspegi sartzen du).

Ildo horretatik, kultur eragileek, norbanakoek edo taldeek egindako proposamenetatik sortutako ekimenei laguntza emateak Bizkaiko kultur ekoizpena aberastu eta kultur sarea indartzen laguntzen du, lehengoengandik jasotako kultur ondarea eta hori helarazteko estekak gordetzen laguntzeaz gain.

Azaldutakoaren arabera, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3. artikuluek xedatutakoa eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen uztailaren 26ko 132/06 Foru Dekretuak xedatutakoa ikusita, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan emandako ahalmenak erabilita, Kultura Saileko foru diputatuak proposatuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2010eko martxoaren 23ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DA:

#### 1. artikulua.—*Xedea*

Foru dekretu honen xedea da 2010. urtean Bizkaiko kultur ondare etnografikoari buruzko jarduerak egiteko diru-laguntzak nola eman arautzea (foru dekretu honen 2.2. artikuluan ezarritakoak salbuetsita daude).

Foru dekretu honek aipatzen dituen diru-laguntzak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20. artikuluan xedatutakoaren arabera. Foru arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen erregimen juridiko orokorra arautzen du.

#### 2. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak*

1. Foru dekretu honen arabera, honako jarduera hauek jaso dezakete diru-laguntza:

- Xede nagusizat Bizkaiko kultur ondare etnografikoa duten biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak edo ikastaroak egitea.
- Bizkaiko ondare etnografikoari buruzko ikerketa, dokumentazioa, interpretazioa eta azterlana.
- Bizkaiko ondare etnografikoaren katalogazioa edo erregistroa.

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia, 40/2010, de 23 de marzo, por el que se regula la concesión de subvenciones para la realización de actividades en el ámbito de la conservación, investigación y difusión del patrimonio etnográfico de Bizkaia que se realicen a lo largo del año 2010.**

La Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco («Boletín Oficial del País Vasco» 157, de 6 de agosto de 1990), en su artículo 102.2 establece que las Diputaciones Forales aprobarán anualmente los programas de ayuda para la conservación, mejora, restauración y excavación de bienes culturales calificados y de los inventariados, en los que se establecerán las ayudas a conceder, así como los criterios y condiciones para su adjudicación.

Dentro de este marco normativo el presente Decreto Foral regula la concesión de subvenciones para la realización de actividades relativas al patrimonio etnográfico de Bizkaia, que se realicen a lo largo del año 2010, sobre la base de los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

El fomento de la realización de actividades en el campo de la conservación, investigación y difusión del Patrimonio Cultural Etnográfico, es uno de los objetivos del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia. Estas actividades tienen como finalidad colaborar, tanto en la preservación del Patrimonio Cultural Etnográfico, como a su divulgación en una acción de enriquecimiento y sensibilización de la ciudadanía.

Etnografía comprende el estudio de las características de un pueblo o de un grupo, empleando para su fin técnicas y procedimientos de recopilación, organización y análisis de datos, sobre todo aplicando metodología cualitativa. Los datos constituyen una descripción. Se relaciona con la etnología y antropología (ambas incluyen la perspectiva comparativa y teórica en el análisis) y la etnohistoria (que incluye la perspectiva temporal).

En este sentido, apoyar las iniciativas surgidas de las propuestas de los diferentes agentes culturales, individuales o colectivos, contribuye no solo a preservar el patrimonio cultural heredado y sus vínculos de transmisión, sino también a enriquecer la producción cultural propia y a reforzar el tejido cultural de Bizkaia.

Por ello, en virtud de lo expuesto, y vistos los artículos 17, 39k y 64.3 de la Norma Foral 3/1987 de 13 de Febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como el Decreto Foral 132/2006, de 26 de julio, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Cultura, y en uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, a propuesta de la Ilma. Sra. Diputada Foral titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación de esta Diputación Foral en reunión de 23 de marzo de 2010,

SE DISPONE:

#### Artículo 1.—*Objeto*

Constituye el objeto del presente decreto Foral la regulación de la concesión de subvenciones para la realización de actividades relativas al patrimonio etnográfico de Bizkaia, que se lleven a cabo a lo largo del año 2010, salvo las que se señalan en el artículo 2.2 de este Decreto Foral.

Las subvenciones a que se refiere este Decreto Foral se otorgarán en régimen de concurrencia competitiva, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

#### Artículo 2.—*Actividades subvencionables*

1. Las actividades subvencionables con arreglo al presente Decreto Foral son las siguientes:

- Celebración de congresos, jornadas, seminarios o cursos cuyo objeto principal sea el Patrimonio Etnográfico de Bizkaia.
- Investigación, documentación, interpretación y estudio sobre el Patrimonio Etnográfico de Bizkaia.
- Catalogación y registro del Patrimonio Etnográfico de Bizkaia.

d) Bizkaiko ondare etnografikoa artatu, berreskuratu edo hari balioa ematea.

e) Bizkaiko kultur ondare etnografikoaren zabalkundea, argitalpena eta hedapena.

2. Honako esku-hartze hauek ez dute diru-laguntzarik jasoko:

a) Hartzaile talde zehatz batentzat bakarrik diren jarduerak, adibidez, diru-laguntza eskatu duen erakundeko kideentzat soilik bada.

b) Helburutzat hauetakoren bat duten kultur jarduerak edo horiei zuzenean lotuak direnak:

- 1) Arte plastikoak, zinea eta literatur sorkuntza.
- 2) Heziketa.
- 3) Gizarte ongizatea.
- 4) Ingurumena.
- 5) Gazteak, aisialdia eta astialdia.

c) Ikasketa bidaiak, ibilaldiak edo horien antzekoak direla-eta egiten diren jarduerak.

d) Zuzenean edo zeharka, Bizkaiko Foru Aldundia edo beste herri administrazio batzuk egiten ari diren jarduerak edo egitea aurreikusita daudenak.

3. Diru-laguntza, bakar-bakarrik 2010. urtean benetan egiten den jarduerari emango zaio.

### 3. artikulua.—*Onuradunak*

Oro har, onuradun izan ahalko dira hurrengo atalean aipatzen diren erakundeak, diru-laguntza emateko arrazoi den jarduera gauzatzea aurrez ikusi badute. Horretarako, diru-laguntzen arloko foru araudiak oro har ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztela egiaztatu behar dute onuradunek.

Helbide soziala eta fiskala Bizkaian duten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak onuradun izan ahal dira, baldin eta haien helburua etnografiari lotuta badago eta dagozkion erregistroetan izena emanda badaukate.

### 4. artikulua.—*Eskabideak eta agiriak*

1. Diru-laguntza eskabideak foru dekretu honen I. eranskin gisa ageri den inprimaki ofizialean aurkeztuko dira, diru-laguntzaren onuradun izateko beharrezko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten hurrengo agiriekin batera.

2. Erakundeari buruzko agiriak:

a) Eraketa eskrituraren, erakundearen estatutuen eta elkarte bakoitzari bere izaeraren arabera Erregistro publikoan dagoen izen-ematearen kopia. Administrazioak dagoeneko agiri horiek badauzka, zein espedientetan dauden eta horietan zein aldaketa izan den adieraztea.

b) Erakundearen ordezkari arituta, eskabidea sinatzen duenaren nortasun agiri nazionalaren kopia eta ordezkaritzaz-ahalordea.

c) Erakundearen IFKren kopia.

d) Erakunde eskatzaileek eskabidea aurkeztuta baimena emango diote organo kudeatzaileari, zerga-administrazioei eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorriari ziurtagiriak eskatzeko. Hala organo kudeatzaileak eskaera izapidetu ahal izango du.

e) V. eranskina: ondo betetako hartzekodunen fitxa.

3. Jarduerari dagozkion agiriak:

a) Jardueraren edo proiektuaren txosten zehaztua. Dokumentu horretan, diru-laguntza jasotzen duen jarduera gauzatzeko gehieneko epeak argi jarri behar dira, eta epe horiek ezin izango dute 2010. urteko abenduaren 31 gainditu.

b) Hala denean, esku-hartzea gauzatzeko behar diren lizenziak eta baimenak lortu izana edo lortzeko bidean egotea adierazten duten egiaztagiria.

c) Proiektuaren sarrera eta gastuen aurrekontu banakaturia eta xehatua, Foru Dekretu honen II. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

d) Conservación, recuperación o puesta en valor del Patrimonio Etnográfico de Bizkaia.

e) Divulgación, publicación y difusión del Patrimonio Etnográfico de Bizkaia.

2. No tendrán la consideración de actividad subvencionable las siguientes:

a) Actividades restringidas a un colectivo determinado, como pueden exclusivamente ser los/as asociados/as de la entidad solicitante.

b) Actividades culturales que tengan por objeto principal o guarden relación directa con:

- 1) Artes plásticas, cine y creación literaria.
- 2) Educación.
- 3) Bienestar Social.
- 4) Medio ambiente.
- 5) Juventud, ocio y tiempo libre.

c) Actividades que se realicen con motivo de viajes de estudios, excursiones o similares.

d) Aquellas actividades que, directa o indirectamente, estén siendo realizadas, o esté prevista su realización por la Diputación Foral de Bizkaia u otras administraciones públicas

3. La subvención vendrá referida a la actividad que efectivamente se realice a lo largo del año 2010.

### Artículo 3.—*Beneficiarios*

Con carácter general, podrán ser beneficiarias las entidades que se señalan en el apartado siguiente, que hayan previsto realizar la actividad que fundamenta el otorgamiento de la subvención. Para ello deberán acreditar el cumplimiento de los requisitos que con carácter general establece la Normativa Foral en materia de subvenciones.

Podrán ser beneficiarias las entidades privadas sin fines lucrativos, con domicilio social y fiscal en Bizkaia, cuyo objeto esté relacionado con la etnografía y se encuentren inscritas en los correspondientes registros.

### Artículo 4.—*Solicitudes y documentación*

1. Las solicitudes de subvención se presentarán en la instancia oficial que figura como Anexo I del presente Decreto Foral, junto con la documentación que a continuación se señala y que es acreditativa del cumplimiento de los requisitos necesarios para ser beneficiario de la subvención.

2. Documentación relativa a la Entidad:

a) Copia de las escrituras de constitución y estatutos de la entidad e inscripción en el Registro público correspondiente o, en el supuesto de que dicha documentación obre ya en poder de la Administración, indicación del expediente en el que se encuentra y modificaciones posteriores que haya podido conocer.

b) Copia del Documento Nacional de Identidad de quien firme la solicitud en representación de la entidad y acreditación del poder de representación.

c) Copia del C.I.F. de la Entidad.

d) La presentación de la solicitud por parte las Entidades solicitantes, conllevará la autorización al órgano gestor para recabar los certificados a emitir por las Administraciones Tributarias y por la Tesorería General de la Seguridad Social, a fin de dar trámite a la solicitud.

e) Anexo V, Ficha de acreedores debidamente cumplimentado.

3. Documentación relativa a la actividad:

a) Memoria detallada de la actividad o proyecto en la que se deberá consignar, de forma expresa, los plazos máximos de ejecución de la actividad subvencionada, no pudiendo éstos superar el 31 de diciembre del año 2010.

b) Cuando proceda, acreditación de haber obtenido o estar en trámite de obtención de las autorizaciones, licencias y permisos necesarios para llevar a cabo la intervención.

c) Presupuesto desglosado y detallado de ingresos y gastos del proyecto, según el modelo establecido en el Anexo II de este Decreto Foral.

Aurrekontuak orekatua izan behar du, eta foru dekretu honen babesean eskatzen den diru-laguntzaren zenbatekoa argiro xehatu behar du.

d) Foru dekretu honetako 6. artikuluan adierazitako adjudi-kazio irizpideak justifikatzeko gainerako agiriak.

e) Helburu bererako eskatutako beste diru-laguntza eskaera batzuen zerrenda edo, beste eskaerarik egin ez bada, hori azal-tzeko idatzizko adierazpena.

Ildo horretatik, zehazki adierazi behar da beste edozein era-kunderi, publiko zein pribaturi, helburu berbererako egindako diru-lagun-tza eskabidea, bai eta horren egoera (ukatua, erantzunaren zain, onar-tua) eta zenbatekoa (IV. eranskina) xehetasunez aditzera ematera ere.

#### 5. artikulua.—*Agiriak aurkeztea eta horretarako epeak*

1. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu ahal izango dira (Bilboko Maria Diaz de Haro kaleko 11. zenbakian), edo Herri Administrazioen Arau-bide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaro-aren 26ko 30/92 Legeko 38.4. artikulua zehazten duen moduan (lege hori urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatu zuen).

2. Eskabide bakoitzak Bizkaiko kultur ondare etnografikoari buruzko jarduera-proiektu bakarra izango du.

3. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

4. Eskabideak oso-osorik bete ez badira edo foru dekretu honetan eskatutako agirietariko edozein falta bada, agindeia egingo zaio interesdunari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezik, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta eskabidea artxibatu egingo dela, horretar-ako ebazpena eman ondoren.

5. Kultura Ondarearen Zerbitzuak beharrezko irizten badio, aurkeztutako eskabideak ebazteko agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei. Agindeia jaso duen eskatzaileak agiriok ezar-ritako epearen barruan aurkeztu ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta eskabidea artxibatu egingo da, dagokion ebaz-pena eman ondoren.

6. Norberaren datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, jakitera ematen da eska-tzaileen datu guztiak fitxategi batean sartuko direla, diru-lagun-tzetarako deialdi hau kudeatzeko eta deialdiarekin zerkusua duen beste edozein administrazio-espeditante kudeatzeko. Bizkaiko Foru Aldundia fitxategi horren erantzulea da, eta haren aurrean fitxa-tegia erabili, zuzendu, ezabatu eta haiei aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira, jendeari arreta emateko bulegoetara joanda eta, bertan, NANA aurkeztuta.

#### 6. artikulua.—*Balorazio-irizpideak*

1. Diru-laguntzen eskabideen ebazpen proposamena egiteko eta diru-laguntzen zenbatekoa ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak, gehienez, 10 puntu emango ditu, jarraian adierazten diren irizpi-deak eta horien haztapena kontuan hartuta:

a) Etonografiaren ikuspegitik, esku-hartzeak dituen kalitatea eta interesa. Horregatik, gehienez 3 puntu emango dira.

Diru-laguntzaren xede den esku-hartzearen interesak eta kali-tateak beraren kultur balioei egiten die erreferentzia eta, bereziki, ondare etnografikoaren kultur balioei. Ondorioz, helburu hauetako bat duten ekimenak baloratuko dira: desagertzeko arriskuan dagoen ondare elementu bat edo balio etnografikoko jarduera, doku-mentazio edo memoria bat kontserbatzea, edo galtzeko zorian dagoen ondare etnografiko bat ikertu, katalogatu edo hedatzea. Gehieneko puntuazioaren barruan (3 puntu), interes gutxiagoko-tzat jotzen dira desagertutako jarduerak birsortzeko jarduketak eta ondare etnografiko ezagunagoak hedatzea helburu dute-nak, horien balioa ez baita ghitzen proposatutako jardueraren bidez.

Beraz, haztapen hau ezartzen da:

- 3 puntu: gehienezko interesa eta kalitatea.
- 2,5 puntu: interes eta kalitate bikainak.

El presupuesto habrá de ser equilibrado y detallar expresamente la cantidad solicitada como subvención de acuerdo al presente Decreto Foral.

d) Demás documentación que justifique los criterios de adjudicación señalados en el artículo 6 de este Decreto Foral.

e) Relación de otras solicitudes de subvención para el mismo objeto o, en el caso de no haberse solicitado ninguna otra subvención, declaración escrita indicando este extremo.

En este sentido, habrá de detallarse toda subvención instada a cualquier otra entidad, pública o privada, para el mismo objeto, indicándose el estado de la misma (denegada, pendiente de con-testación, concedida) y su importe Anexo IV.

#### Artículo 5.—*Entrega de documentación y plazos*

1. Las solicitudes se podrán presentar en las oficinas del Ser-vicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia (calle María Díaz de Haro, 11, Bilbao-Bizkaia), o en la forma que deter-mina el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régi-men Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/99, de 13 de enero.

2. Cada solicitud contendrá un único proyecto de actividad relativa al Patrimonio Etnográfico de Bizkaia.

3. El plazo de solicitudes será de UN mes, contando a par-tir del día siguiente a la publicación en el «Boletín oficial de Biz-kaia».

4. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o fal-tara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá al interesado para que en el plazo de diez (10) días hábi-les subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente reso-lución.

5. En aquellos casos en que se considere necesario, el Ser-vicio de Patrimonio Cultural podrá requerir a los solicitantes cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si el soli-citante requerido no presentase la documentación en el plazo que se establezca se le tendrá por desistido de su solicitud, archiván-dose la misma, previa la correspondiente resolución.

6. Con el objeto de dar cumplimiento a lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, sobre Protección de Datos deCa-rácter Personal, se informa de que los datos de los solicitantes serán incluidos en un fichero con la finalidad de gestionar la presente con-ocatoria de subvenciones y cualquier otro expediente administra-tivo relacionado con la misma. El responsable de este fichero es la Diputación Foral de Bizkaia, ante la cual se podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, dirigiéndose para ello a las oficinas de atención al público donde deberá presentar su D.N.I.

#### Artículo 6.—*Criterios de valoración*

1. Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las soli-citudes de subvención y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios y su ponderación, que sobre un máximo de 10 puntos, quedan esta-blecidos como sigue:

a) Calidad e interés de la intervención desde el punto de vista etnográfico. Se valorará hasta 3 puntos del total a conceder.

El interés y la calidad de la intervención para la que se soli-cita la subvención se entienden referidos a sus valores culturales, y en particular a los que afectan específicamente al Patrimonio Etno-gráfico. En este sentido se valorarán las iniciativas que tienen como objetivo la conservación de un elemento patrimonial, actividad, docu-mentación o memoria de valor etnográfico en riesgo de desaparición, o la investigación, catalogación o difusión de un patrimonio etnográfico igualmente en riesgo de desaparecer. Sobre este máximo de 3 puntos se consideran de menor interés los proyectos de actua-ciones de reinversión de actividades desaparecidas y los de difu-sión de patrimonios etnográficos más comunes, cuyo valor no se incrementa por razón de la actividad propuesta.

En consecuencia, se establece la siguiente ponderación:

- 3 puntos: Máximo interés y calidad.
- 2,5 puntos: Sobresaliente interés y calidad.

- 2 puntu: interes eta kalitate altuak.
- 1,5 puntu: interes eta kalitate nabarmenak.
- 1 puntu: interes eta kalitate nahikoak.
- 0,5 puntu: interes eta kalitate eskasak.
- Punturik ez: proiektuak ez dauka batere interesik, ez eta kalitaterik.

b) Jardueraren elementu eraberritzaileak. Horregatik, gehienez 1,5 puntu emango dira.

Irizpide horren barruan, gai-berrikuntzaren arloko elementuak baloratuko dira, kontuan hartuta gai-eremu bereko antzeko irismeneko beste jarduera batzuk dauden, bai eta, berrikuntza metodologikoa ere. Azken horrek diru-laguntzaren xede den jarduera tratatu, ikertu edo hedatzeko metodologia aplikatuei egiten die erreferentzia.

Puntuaziorik altuenak emango zaizkie gai-eremu berritzaileak hartzeagatik nabarmentzen diren ekimenei. Berritzaileak izango dira gai-eremu horietan ez dagoelako ekarpen bibliografikorik, ez ikus-entzunezkorik, ez antzeko dokumentaziorik. Halaber, hain ohikoak ez diren ondare etnografikoaren alderdiei heltzen dieten ekimenei jasoko dituzte puntuaziorik altuenak. Puntuazio baxuagoak jasoko dituzte ondare etnografikoaren ohiko alderdiak azpimarratzen dituzten ekimenei (tokiko eremuan modu trinkoagoan egiten badute ere), batere berritzaileak ez diren metodoak erabiltzen dituzten ekimenei (balio etnografikoari buruzko informazio-metaketa tradizionala) eta kudeaketa-programa berezirik ez duten hedapen-proiektuek.

Hala bada, eskabideak ponderazio eskala honen arabera baloratuko dira:

- 1,5 puntu: jarduerak oso elementu berritzaileak dauzka.
- puntu 1: jarduerak eduki berritzaile batzuk dauzka.
- 0,5 puntu: berrikuntza gutxiko jarduera da.
- Jarduerak batere berrikuntzarik ez badakar, ez du punturik lortuko.

c) Jarduera proiektuaren ezaugarri teknikoak. Horregatik, gehienez 1,5 puntu emango dira.

Informazioa tratatzeko eta komunikazioa kudeatzeko teknologia berriena baloratuko da, bereziki, bai eta proposatutako baliabide eta bitartekoak erabiltzeko behar den espezializazio maila tekniko edo profesionala ere. Kontuan hartuko da proposatutako jarduerak indarreko nazioarteko arauak betetzen dituen, batez ere, datuak bildu, aztertu eta gordetzeko metodo eta formatuen arloetan.

Arlo teknikoan gehien nabarmentzen diren eskabideen artean, bereziki kontuan hartuko dira ikus-entzunezko artxibo historikoak hainbat formatutan digitalizatzen dituzten proiektuak eta erregistro etnografikoa patrimonializatzeko aukera ematen duten baliabide tekniko modernoak eta soinu- eta irudi-artxiboak kudeatzeko programak erabiltzea.

Honako hauek ere ondo baloratuko dira: desagertuta edo desagertzeko arriskuan dauden lan-teknika tradizionalak eta espezializatuak —berez ondare balio etnografikoko edo ondare balio inmaterialak ezagutzen sistema bat osatzen dutenak— eta zuzendutako inkesta etnografikoak prestatu eta sintetizatzen aritzen diren pertsonen eskatzen zaizkien konplexutasun teknikoak eta espezializazioa. Komunikazio teknika generikoak eta bereizi gabeak erabiltzea, ordea, gutxiago baloratuko dira.

Hala bada, eskabideak ponderazio eskala honen arabera baloratuko dira:

- 1,5 puntu: ezaugarri tekniko oso konplexuak eta aurreratuak dituen jarduerak.
- puntu 1: konplexutasun tekniko nabarmen duen jarduera.
- 0,5 puntu: konplexutasun tekniko txikia eskatzen duen jarduera.
- Ez zaio punturik emango batere konplexutasun teknikorik ez duen jarduerari.

d) Jarduerak kanpoan dituen oihartzuna eta zabalkundea. Horregatik, gehienez 2 puntu emango dira.

Diru-laguntzarako proposatutako jardueraren oihartzuna eta balizko hedapena baloratuko dira, bai jarduerak har dezakeen lurralde-eremuari eta gizarte-zerrendari dagokienez, bai proposamenaren onuradunen kopuruari eta iraunkortasunari dago-

- 2 puntos: Alto interés y calidad.
- 1,5 puntos: Destacado interés y calidad.
- 1 punto: suficiente interés y calidad.
- 0,5 puntos: escaso interés y calidad.
- No obtendrá puntuación: Nulo interés y calidad.

b) Elementos innovadores de la actividad. Se valorará hasta 1,5 puntos del total a conceder.

Con relación a este criterio se valorarán tanto los elementos de innovación temática, con relación a la existencia de otras actividades de similar alcance relativas al mismo campo temático, como la innovación metodológica, referida a la aplicación de metodologías avanzadas para el tratamiento, estudio o difusión de la actividad objeto de subvención.

Se otorgarán las puntuaciones más altas a iniciativas que destacan por cubrir campos temáticos novedosos en las que no existen aportaciones bibliográficas, audiovisuales o documentos similares, o que abordan aspectos menos frecuentados del patrimonio etnográfico. Se valoran con inferior puntuación las iniciativas que inciden sobre aspectos más habituales del patrimonio etnográfico, aun cuando cada una en su caso lo haga con mayor concentración e intensidad local, o que se sirven de métodos poco innovadores, de acumulación tradicional de información de valor etnográfico, y de proyectos de difusión en los que no se aprecia la existencia de un programa de gestión específico.

De este modo, se valorarán las solicitudes de acuerdo con la siguiente escala de ponderación:

- 1,5 puntos: Actividad que cuenta con elementos muy innovadores.
- 1 punto: Actividad dotada de algunos contenidos novedosos.
- 0,5 puntos: Actividad de escaso carácter innovador.
- No obtendrán puntuación: Actividad que no implica innovación alguna.

c) Características técnicas de la actividad proyectada. Se valorará hasta 1,5 puntos del total a conceder.

En este punto se valorará especialmente el uso de las nuevas tecnologías de tratamiento de la información y de gestión de la comunicación, y al mismo tiempo, la exigencia de especialización técnica o profesional requerida para hacer uso de los recursos y medios de trabajo propuestos. Se tendrá en cuenta la sujeción de la actividad propuesta a normas vigentes internacionales establecidas sobre todo en métodos y formatos de recopilación, análisis y conservación de datos.

Entre las solicitudes técnicamente más sobresalientes se tendrán especialmente en cuenta, los proyectos de digitalización de archivos audiovisuales históricos de diversos formatos, así como el empleo de modernos recursos técnicos y programas de gestión de archivos sonoros y de imagen que permitan patrimonializar el registro etnográfico.

Se valorará asimismo tanto la recuperación de técnicas de trabajo tradicionales y especializadas, desaparecidas o en riesgo de desaparición, que en sí mismas constituyen un sistema de conocimientos con valor patrimonial etnográfico o inmaterial, como la complejidad técnica y la especialización requerida a los encargados de elaborar y sintetizar encuestas etnográficas dirigidas, mientras se aprecia en menor medida el uso de técnicas de comunicación genéricas y no discriminadas.

De este modo se valorarán las solicitudes de acuerdo a la siguiente escala de ponderación:

- 1,5 puntos: Actividad con características técnicas muy complejas y avanzadas.
- 1 punto: Actividad de notable complejidad técnica.
- 0,5 puntos: Actividad con un mínimo no relevante de complejidad técnica.
- No obtendrá puntuación: Actividad sin complejidad técnica alguna.

d) Repercusión y difusión exterior de la actividad. Se valorará hasta 2 puntos del total a conceder.

Se valorará la repercusión y difusión potencial de la actividad propuesta para subvención, tanto en relación a la extensión del área territorial y de la franja social a la que afecta dicha actividad, como a la amplitud y perdurabilidad del público interesado o beneficia-

kienez. Hala, kalifikaziorik altuenak Bizkai osoa eremu eta ikergai duten ekimenei edo publiko zabala xede duten ekimenei emango zaizkie.

Hala, poderazio eskala hau ezartzen da:

- 2 puntu: Bizkaiko Lurralde Historiko osora zabaltzen diren iraupen luzeko jarduerak.
- 1,5 puntu: Bizkaiko Lurralde Historiko eskualde batera baino gehiagora zabaltzen diren iraupen luzeko jarduerak.
- puntu 1: iraupen ertaineko jarduerak edo Bizkaiko lurraldeko eskualde batera hedatzen direnak.
- 0,5 puntu: hedapen laburreko jarduerak, iraupen laburrekoak edo Bizkaiko udalerrri batera edo batzuetara mugatzen direnak.
- Ez dute punturik lortuko hedapen arloan batere ahalmenik ez duten jarduerak.

e) Jardueraren arduradunaren eta egileen prestakuntza pertsonal, profesional edo teknikoa. Horregatik, gehienez 2 puntu emango dira.

Esku-hartzearen jarduera burutzen duten arduradunen prestakuntza pertsonal, profesional eta teknikoa baloratuko da, Horretarako, proposatutako jarduera ondo burutzeko ahalmena neurtuko da, aurretiko antzeko esperientzietan metatutako gaitasunetik abiatuta. Curriculum akademikora mugatu beharrean, norberaren prestakuntzari erreparatuko zaio. Horretarako, aurretik burututako jardueren kalitatea eta kantiitatea kontuan hartuko dira, bai eta proposatutako jardueraren xede den materiari lotuta egindako ibilbidea ere. Izan ere, aurretiko prestakuntza horrek diru-laguntzaren xede diren ekimenak ondo burutuko direla bermatuko du.

Ponderazio hau ezartzen da:

- 2 puntu: prestakuntzarik altuena garatu beharreko jarduera zehatzerako.
- 1,5 puntu: prestakuntza bikaina garatu beharreko jarduera zehatzerako.
- 1 puntu: oso prestakuntza ona garatu beharreko jarduera zehatzerako.
- 0,5 puntu: prestakuntza edo esperientzia nahikoa garatu beharreko jarduera zehatzerako.
- Ez da punturik emango prestakuntza edo esperientzia eskasak bada garatu beharreko jarduera zehatzerako.

2. Epaimahai kalifikatzailearen iritziz, gutxienez, 5 puntu gainditzen ez dituzten proposamenak ez dira onartuko.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren arabera zehaztuko da, BEZa kanpo utzita. Aurrekontu hori foru dekretu honen II. eranskinean ageri den ereduaren aurkeztuko da, eta eskatzen den diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da.

Ez da diru-laguntzarik emango ekipo-ondasunak erosteko, horien amortizazioa dekretu honetako jarduerak egiteko epea baino luzeagoa bada, eta oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29. artikuluan berariaz jasota daudenak.

4. Edozelan ere, Foru Dekretu honetan araupetutako diru-laguntzek horretarako ezarritako aurrekontuetan dagozkien zuzkidurak izango dituzte mugatzat; ondorioz, ez da nahikoa izango eskatzaileak kapitulu bakoitzean ezarritako baldintza eta beharkizunak betetzea. Izan ere, beharrezkoa izango da eskatzailearen eskabideari aurrekontu-zuzkidurak kontuan hartuta erantzun ahal behar izatea.

5. Proiektua eta aurrekontua benetan diru-laguntza jaso dezakeen jarduerari dagozkioda egiaztatu ondoren edota, behar izanez gero, gastuak eta gairik konputaezinak kendu ondoren, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, eta hogeita hamar mila euroko (30.000,00 euro) gehieneko kopurua ezartzen da, proposatutako jarduera bakoitzeko:

6. Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste diru-laguntza nahiz laguntza batzuekin batera, ezingo du inoiz onuradunak garatu beharreko jarduerak duen kostuaren ehuneko laurogei (%80) gainditu.

rio de la propuesta. De este modo, las calificaciones más altas se orientarán a valorar las iniciativas que tienen como ámbito y estudio todo el territorio de Bizkaia o que están orientadas a una divulgación abierta ante un público amplio.

Se establece así la siguiente escala de ponderación:

- 2 puntos: Actividades de difusión duradera que se extienden a todo el Territorio Histórico de Bizkaia
- 1,5 puntos: Actividades de difusión duradera y que se extienden a más de una comarca del Territorio Histórico de Bizkaia.
- 1 punto: Actividades con una difusión media o que se extienden a una sola comarca del territorio de Bizkaia,
- 0,5 puntos: Actividad con difusión reducida en audiencia potencial, poco duradera o que se limita tan solo a uno o varios municipios particulares de Bizkaia.
- No obtendrá puntuación: Actividad de nula potencialidad en materia de difusión

e) Cualificación personal, profesional o técnica del responsable de la actividad y de quienes la realicen. Se valorará hasta 2 puntos del total a conceder.

Se evaluará la cualificación personal, profesional y técnica de los responsables o ejecutores de la actividad susceptible de la intervención, medida en términos de competencia para llevar a cabo satisfactoriamente la actividad propuesta, a partir de la estimación de su capacitación acumulada en experiencias previas de similar naturaleza. Sin limitarse por ello al currículo académico, se atiende a la cualificación individual con relación a la calidad y cantidad de actividades o proyectos realizados precedentemente, así como a su trayectoria de vinculación personal a la materia específica objeto de la actividad propuesta, de modo que esta cualificación previa sirva para garantizar que las iniciativas para las cuales se solicita la subvención sean resueltas con éxito.

Se establece la siguiente ponderación:

- 2 puntos: Máxima cualificación deseable para la actividad específica a desarrollar.
- 1,5 puntos: Sobresaliente cualificación para la actividad específica a desarrollar.
- 1 punto: Notable cualificación para la actividad específica a desarrollar.
- 0,5 puntos: Cualificación o experiencia suficiente para la actividad específica a desarrollar.
- No obtendrá puntuación: Insuficiente o nula cualificación o experiencia para la actividad específica a desarrollar.

2. Las propuestas que no alcancen una puntuación mínima de 5 puntos, a juicio del Tribunal Calificador, no serán atendidas.

3. La determinación de la cuantía de la subvención se realizará a partir del presupuesto de la actividad proyectada, I.V.A. excluido, que se presentará en el modelo establecido en el Anexo II de este Decreto Foral, detallando la cuantía de la subvención solicitada.

No tendrán la consideración de gastos subvencionables la adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al período de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto y, en general, los que resultan expresamente excluidos en el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo.

4. En todo caso, las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, tendrán como límite las correspondientes dotaciones presupuestarias establecidas al efecto, y en consecuencia no bastará con que el/la solicitante reúna las condiciones y requisitos exigidos, sino que se precisará, además, que su solicitud pueda ser atendida teniendo en cuenta las respectivas dotaciones presupuestarias.

5. Una vez comprobado que el proyecto y el presupuesto corresponden efectivamente a actividades susceptibles de subvención, o realizada en su caso la depuración de los gastos y excesos no computables, se procederá a determinar la cuantía de la subvención, estableciéndose la cuantía máxima en treinta mil euros (30.000,00 euros) por actividad proyectada.

6. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el ochenta por ciento (80%) del coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

7. Epaimahai kalifikatzaileak, aurkeztutako eskabideei puntuazioa eman eta ondoren horiek erkatu egingo ditu eta, horrela, horien artean lehenetsuna dutenak ezarriko ditu zehaztutako irizpideei jarraituta. Horrekin batera, diru-laguntzen zenbatekoa zehaztuko du, eta eskatzaile bakoitzak lortu dituen puntuoen arabera banatuko du aurrekontuko dirua, 6.5 eta 6.6 artikuluan ezarritakoa muga errespetatuz eta formula honekin bat etorrira:

$$\frac{\text{Lortutako puntuak} \times \text{aurrekontu araztua} \times \text{aurrekontuko diru-izendapena}}{\text{Honen batuketa (puntuak} \times \text{aurrekontu araztuak)}}$$

#### 7. artikulua.—Aholkularitza

Foru dekretu honen interpretazioari eta haren helburu diren proiektuei buruz sortutako zalantza edo galdera guztiak argitzeko laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Kulturako Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak.

#### 8. artikulua.—Epaimahai kalifikatzailea

1. Epaimahai kalifikatzaile bat sortuko da, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituena; Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako diputatuak izendatuko du epaimahai hori, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko den foru agindu baten bidez, eta honako kide hauek izango ditu:

- a) Epaimahaiburu titularra:
  - Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia.
 Ordezko epaimahaiburua:
  - Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia.
- b) Epaimahaikide titularrak:
  - Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
  - Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
  - Etnografia-ondarearen arloko aditu bat.
 Ordezko epaimahaikideak:
  - Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua.
  - Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ondarearen Zerbitzuko teknikari bat.
  - Etnografia-ondarearen arloko aditu bat.
- c) Idazkaria, hitz egiteko eskubidea izango du baina ez botoa emateko:
  - Idazkari titularra: Kulturako Zuzendaritza Nagusiari atxikitako administrazio orokorreko teknikari bat.
  - Ordezko idazkaria: Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko funtzionario bat.

2. Epaimahai kalifikatzaileak diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kulturako foru diputatuari, beronek behin betiko ebazpena eman dezan.

#### 9. artikulua.—Ebazpena

1. Deialdia ebatzi aurretik, eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko du Kultura Ondarearen Zerbitzuak. Eskatzailearen batek betebeharrak ez ditu betetzeko ez baitu, deitu egingo zaio 10 eguneko epean egoera konpon dezan, bai eta ohartarazi ere, hori egin ezean, bere eskaeran atzera egin duela joko dela.

